

5. KANALAK

Gure helburua bezeroengana iristea da, gure enpresa nola komunikatzen den eta bere merkatu-segmentuetaraino nola iristen den deskribatuko dugu. Hau da, publiko handia duten plataforma multzo bat erabiliko dugu gure produktuari publizitatea emateko. Gure planean dauden plataformak hauek dira: Youtube, telebista, Spotify eta Twitch. Baina horrez gain, ere beste hainbat baliabide erabiliko ditugu gure produktua helarazteko. Sare sozialetan iragarkiak jartzea, hau da, flashak. Horretarako instagram bezalako sare sozialetan jarriko ditugu batez ere gu bezalako gazteak ikusteko, baita ere, facebook, gaur egun helduak gehiago hau erabiltzen dutelako.

Baina, sare sozialetaz gain, kalean anuntzioak jarriko ditugu(pankartak), autobus geltokietan adibidez, azken finean, jendearentzat eragakargarria den iragarkia egingo dugu. Beste aldetik, ere enpresen akordioan bitartez gure plataforma beste enpresei kosturik gabe eskainiko dugu eta horren truke deskontu bat eskain diezaiekegu bezeroei. Horrela iritsiko ginateke bai gaztengan edo helduengan. Internet bidezko Salmenta eta, izatekotan, baita gure denda propioak ere sortuko ditugu. Denda horietan bonuak eta horrelako ekintza eskainiko ditugu.